



KIROL ELKARTEEI PROIEKTUAREN AURKEZPENA EGITEKO GUTUN PROPOSAMENA

Egun on:

Udaleko kirol eta euskara departamentuetatik zuzentzen gara X kirol elkartera.

Herriko haurren/gazteen kirol sistemetan euskararen erabilera areagotzeko egitasmo bat martxan jartzekotan gabilta eta zuek ere parte hartzea gustatuko litzazuke.

Labur-labur azalduta, kirol elkarteetan euskarak duen egoera ezagutu eta hobetzekoak identifikatu zein martxan jartzen lagundu nahi dizuegu. Horretarako, kirol elkarteetan elkarrekin diagnostikoak egin, elkarte bakoitzera egokitutako ekintzak/erronkak aurreikusi eta horiei jarraipena egitea da proposatu nahi dizueguna. Bide horretan gu izango gara bidelagun. Eta prozesu honetan guztian udala, herriko kirol elkarteak eta kirol sisteman eragina duten gainontzeko entitateen saretzea eta harremanak sustatu nahi dira. Horretarako, kirol mahaia eratzea da proposamena.

Zehazki, proiektuak esparru honetan eragin nahi du.

- Udalerriko gazte-mailako kirol-sistema bere osotasunean 5 urtetik 18 urtera, kirol-eskola eta eskola-kiroletik hasita jubeniletara arte
- Euskararen erabilera handitzeko lanketa sistematizatzean
- Herriko kirol eragileen (ikastetxeak, kirol klubak, guraso elkarteak, euskara elkarteak) arteko elkarlanean
- Kirol elkarte eta udalarekiko koordinazioan

Eta proiektuaren ezaugarriak honakoak izango dira:

- Haurrak / gazteak erdigunean
- Herrira egokitutako prozesua
- Unibertsoa: 5-6 urtetik 18 urte arte
- Ikuspegi sistemikoa eta holistikoa
- Eragileak eta eragileen arteko sinergiak
- Eragin eremuak: ezagutza, erabilera, motibazioa, erakundetzea
- Berrikuntza
- Sistematizazioa, estandarizazioa

Idatzi honetakoak hobeto azaltzeko elkartu gaitzke edo telefonoz hitz egin dezakegu.

Bukatzeko, esan nahi dizuegu guretzat herriko kirol elkarteak ezinbesteko aktoreak zaretela herriarentzat eta herriko haur zein gazteentzat. Horregatik, euskararen ezagutza eta erabileraren sustapenean zuek ere gure bidelagun izatea nahiko genuke, kontuan hartuta herriko haur eta gazteentzat kirolaren esparrua beraien sozializazio eremu nagusia dela.

Mila esker gutun honi eskainitako denboragatik. Gurekin elkartzeko edo telefonoz hitz egiteko dituzuen aukerak zeintzuk diren ezagutu nahiko genituzke eta lerro hauetan idatzitakoa hobeto azaldu.

Zuen erantzunaren zain.